


E N A D A K .



AMALAUDUNA.



Udazkenian alegiñ arren etorri dira
Beren oitura duten bezela enadachuak,
Udaberrian berritotzera beren lanchuak,
Edo, topatzen baldin badute, lengo kabira.
Egiten dute amoriozko lenengo jira
Ipiñi nairik kabi sarrean arrautzachuak,
Bañan kabirik gabe arkitzen dira gaiñsuak
Etorririkan aiñ urrutitik toki berrira.
Bada bakoitzak bere lanari diyo ekiten
Kabi berriya antolatzeke tellatupean,
Ta loiarekiñ oso gogorki dute egiten;
Tellatuaren azpiko aldeko zura ertzean,
Kabicho artan chorikumeak jaio ditezen
Enadak ditu jartzen arrautzak lumašapean.

JUAN IGNAZIO URANGA

